

ERAIKIN BERRIAK ABIAN

BOST URTEREN BURUAN PREST NAHI DITUZTE NAFARROAKO LIBURUTEGI NAGUSIA, FILMOTEKA, ETA MUSIKA KONTSERBATORIOA

ALBERTO BARANDIARAN - IRUÑEA

Iruñeko Parte Zaharra eta bere inguruak ziren hasieratik aukeratutako tokiak, baina higiezinak sortutako interesek zentrorra ez, kanpoko aldera eraman dituzte kultura alorrean Nafarroak falta dituen azpiegitura garrantzitsuenetakoak. Eta gune historikoak aukera historikoa galdu duela esan daiteke. Liburutegia, Filmoteka eta Musika Hiria egiteko proiektuak 2009rako nahi dituzte Hezkuntza eta Kultura Sailek, eta Mendebaldeko auzoan eraikiko dituzte.

Aste honetan aurkeztu dituzte Nafarroako liburutegi nagusia eta filmoteka aterpetuko dituen proiektuaren maketak, aurrekontuak eta epeak. Egitasmoa munta handikoa izango da, 28 milioi euroko aurrekontua izango duelako, eta egungo Liburutegi Nagusiak duen gabezia historikoari konponbidea emango diolako. Baina garrantzitsua izango da, batez ere, kontserbatorio nagusiaren eta Pablo Sarasate Orkestraren egoitzen ondoren eraikiko delako, Barañaindik gertu, hiriburuari bertzean: 35.500 metro koadro dena.

Liburutegiarentzat egoitza berriarekin egun San Frantzisko plazan dagoen eraikinaren arazoak amaituko direlakoan daude

arduradunak. Eta 2002an, Kapitania Jauregiaren hondakinak gainean Rafael Moneok altxatu zuen Artxibo Nagusiarekin batera, azpiegitura kultural handien berritze eta egokitze epea bukatutzat emango du Nafarroako Gobernuak.

Lau solairu dokumentu eta filmotekarako

Liburutegi Nagusia eta Filmotekaren eraikinak U itxura izango du, eta hiru solairu eta azpiko solairua. Emandako datuen arabera, datorren urtearen bukaera baino lehen hasiko dute eraikitzen.

Azpiko solairuan, filmoteka, erakustaretoa, dokumentuen gordailua, eta aparkalekuak jarriko dituzte. Beheko solairuan, maileguetarako liburutegia, heimeroteka, haur liburutegia eta beste zerbitzuak. Lehen solairuan dokumentuen gordailua egongo da, eta kontsultarako agiri eta dokumentu bereziak. Bertako bibliografiak ere toki berezia izango du solairu honetan.

Bigarren solairuan, azkenik, ikertzaileentzako toki atonduko dute. Halaber, bertan egongo dira Nafarroako Liburutegi Sarearen zerbitzu nagusiak, eta liburutegiaren beraren administra-



MUSIKA HIRIAN goi eta erdi mailako kontserbatorioa egongo da.

Datuak

Liburutegi Nagusia eta

Filmoteka: 28 milioi euroko aurrekontua izango du, 20.000 metro koadro, eta 2009. urterako amaitu nahi dute. Datorren urtean hasiko dira eraikitzen.

Musika Hiria: Hiru eraikin izango ditu, eta 15 milioi euroko aurrekontua.

BI ERAIKINAK BATERA

Eraikitzen hasteko eta lanak bukatzeko epeak berdinak dira bi proiektuentzat

zio bulegoak. Solairu bakoitzak ia bost mila metro koadro hartuko ditu behin eraiki eta gero.

Proiektua Manuel Ferrer arkitekto kataluniarrarena izango da. Ferrer 2001eko lehiaketan aukeratu eta bat izan zen. Orduan, liburutegi nagusia oraingo egoitza dagoen plazaz bestaldean eraikitzeko zen, Parte Zaharreko eskola publikoaren eraikina, San Frantzisko ikastetxea alegia, bota ondoren. Higiezinak alorrean Iruñean izan den operazio eztabaidatsuenetakoa- ren txanpon trukea izan zen liburutegia orduan, horretarako berez gordetako orubean El Corte Ingles merkataritza gunea altxatzea erabaki baitzuen Yolanda Barcinaren gobernu taldeak, hirigintza egitasmoak aldatuta.

Ikastetxeko guraso eta irakasleek, ordea, proiektuaren aurka

kanpaina hasi zuten, eta datuek, azkenean, arrazoia eman zieten. Baina liburutegi nagusia, beste oruberik ez zelakoan, Parte Zaharretik kanpo ateratu zuten azkenean.

Musika Hirirako, hiru eraikin berri

Liburutegia eta Filmotekaren proiektuak bat egingo du Musika Hiriarekin. Elkarren ondoan egongo dira bi azpiegitura handiak, Ermitagaina eta Tuterako Benjamin kalearen atzealdearen artean, eta biak batera hasi eta batera amaitu nahi dituzte arduradunek.

Musika Hiria deitu izan den inguruan goi mailako kontserbatorioa, erdi mailako kontserbatorioa, eta Pablo Sarasate Orkestraren egoitza egongo dira. Liburutegiarekin gertatzen den bezala, arlo honetan dauden gabeziak askotan salatu izan dituzte irakasle, ikasle eta profesionalak. Goi mailako ikasketak Agoitz kaleko eraikinean ematen dira egun, eta Erdi mailakoak, berriz, Terestarretan. Eraikinek ez dituzte horretarako baldintza egokiak betetzen. Pablo Sarasate Orkestrak, bestalde, artean ez du egoitzarik, eta Barañaingo Auditorioan egin behar izaten ditu entseguak.

Proiektu berriak hamabost milioi euroko aurrekontua izango duela aurreratu dute eraikitzaileek.

LIBURUTEGI NAGUSIAN eta

Filmotekan harri beltza erabiliko dute kanpoko aldeko itxurarako.

